

NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAK 2018ko EKAINAREN 22an EGINDAKO BATZAR NAGUSI BEREZIAREN AKTA

BERTARATUAK:

*Abaigarko Udala
Abartzuzako Udala
Ablitasko Udala
Adiosko Udala
Agilar Kodesko Udala
Oibarko Udala
Allingo Udala
Altsasuko Udala
Antzingo Udala
Andosillako Udala
Antsoaingo Udala
Añorbeko Udala
Agoizko Udala
Araizko Udala
Arangurengo Udala
Arantzako Udala
Arasko Udala
Arbizuko Udala
Artzibarko Udala
Aresoko Udala
Arguedasko Udala
Armañantzasko Udala
Arroizko Udala
Artazuko Udala
Atezko Udala
Aurizko Udala
Aiegiko Udala
Azagrako Udala
Barañaingo Udala
Barbaringo Udala
Bargotako Udala
Barillasko Udala
Basaburuko Udala
Baztango Udala
Beintza-Labaiengo Udala
Beireko Udala
Beraskoaingo Udala
Berako Udala
Berbintzanako Udala
Beriaingo Udala
Berriobeitiko Udala
Berriozarko Udala*

Iruña Park hotelean (Arcadio María Larraona, 1, Iruña), bi mila eta hemezortziko ekainaren 22an, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, NUKFren Batzar Nagusi Berezia hasi da, aldameneko toki entitateen ordezkariak bilduta. Batzarraren buru den mahaia honako hauek osatu dute: Pablo Azcona Molinet jn., Raquel Garbayo Berdonces and., Jesús María Rodríguez Gómez jn. eta Berta Enrique Cornago and., presidentea, lehen presidenteordea, bigarren presidenteordea eta idazkari nagusia, hurrenez hurren. Hona hemen

GAI-ZERRENDIA:

- 1.- NUKFren 2017ko Kontuak onestea.
- 2.- 2018ko lehenbiziko sei hilekoan eginiko jarduketaren kudeaketa txostena.
- 3.- Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru Legearen aurreproiektua.

Presidenteak ongietorria eman die joandakoei, eta mahaiko kideak aurkeztu ditu.

Azaldu du Batzarraren lehenengo helburua zela urteko lehendabiziko sei hilekoan egindako jardueren berri ematea, urtearen erdialdeko beste batzuen moduan, baina orain garrantzi berezia hartu duela gai-zerrendaren barnean sartu delako Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru Legearen aurreproiektua, NUKFk bere iritzia finka dezan gai horren inguruan.

1. gaia- NUKFren 2017ko Kontuak onestea.

Presidenteak 2017ko aurrekontuaren likidazioa azaldu du, zeinak hiru programa baitakartza: NUKFren Aurrekontu Orokorra, Concejo Aldizkariarena eta Prestakuntza Planarena; gainera, hiru programen likidazio finkatua ere badakar, barneko transferentziak kanpoan utzita. Likidazio bateratua 48.955,90 eurokoa da, eta 2017ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakina, berriz, 1.376.461,93 eurokoa.

Bertizaranako Udala
Beteluko Udala
Biurrun-Olkozko Udala
Buñuelgo Udala
Burgiko Udala
Burlatako Udala
Cabanillasko Udala
Cadreitako Udala
Caparrosoko Udala
Carcarko Udala
Zarrakazteluko Udala
Cascanteko Udala
Kasedako Udala
Castejongo Udala
Oltza Zendeako Udala
Cintruenigoko Udala
Ziraukiko Udala
Zizurko Udala
Corellako Udala
Cortesko Udala
Doneztebeko Udala
Etxarriko Udala
El Bustoko Udala
Enerizko Udala
Espartza Zaraitzuko Udala
Esprontzedako Udala
Lizarrako Udala
Esteribarko Udala
Etaiuko Udala
Etxarri Aranazko Udala
Etxauriko Udala
Ezkabarteko Udala
Ezporogiko Udala
Faltzesko Udala
Fiteroko Udala
Fontellasko Udala
Funesko Udala
Fustiñanako Udala
Garinoaingo Udala
Goizuetako Udala
Goñiko Udala
Gorzako Udala
Gesalazko Udala
Hiriberri Aezkoako Udala
Uharteko Udala
Iguzkitzako Udala
Imozko Udala
Irañetako Udala
Irurtzungo Udala
Iturengo Udala
Itzako Udala
Izagaondoko Udala

Segituan, gehien eta gutxien gauzatu diren partidak zehaztu ditu.

Hitza eman zaie bertaratutakoei. Inork hitza eskatu ez duenez, kontuen onespena bozketara jarri da.

Gehiengoz, 42 abstentzio daudela,

ERABAKI DA. NUKFren 2017ko ekitaldiko kontuak onestea, zeinak eranskin gisa atxiki baitzaizkio akta honi.

2. gaia.- 2018ko lehenbiziko seihilekoan eginiko jarduketaren kudeaketa txostena.

Presidenteak errepassoa egin die 2018ko lehenbiziko seihilekoan egin jarduketaren kudeaketa txosteneko punturik aipagarrienei (txostena deialdiarekin batera igorri da).

Finantzazioari datxekiola, nabarmendu du Toki Inbertsioen Plana gauzatzeko hasi dela eta parte hartu dugula plan hori bizkortu eta malgutzeko foru lege baten aurreproiektuan.

Gero, beste jarduketa batzuk aipatu dira: administrazio elektronikoa ezartzea; hauteskunde-elkarteen gastu-muga gainditzeak ekarritako arazoa; lan-talde bat sortu izana Elizak immatrikulatutako ondarearen gainean; eta berdintasun arloan egindakoak, zeinen artean nabarmentzen baita Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin sinatutako hitzarmena, helburu duena alor horren inguruko prestakuntza eta dibulgazio saioak egitea.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei:

Monteagudoko alkate den Herrero jaunak adierazi du, Toki Inbertsioen Planaz, zalantzazkoa dela balorazio txostena berrikusita egon behar izatea hartan obra bat sartu ahal izateko.

Presidenteak zehaztu du indarreko araudiak aurreikusten duela txostenak eguneratuta eduki beharra, eta, betebeharrak hori konplitu ezean, ezin zaiola salbuespeneko araudiari heldu.

Monteagudoko alkate jaunak, orobat, zalantzan jarri du txostenak eguneratuta eduki beharra sartu izana Funtzari buruzko Foru Legean.

Presidenteak azaldu du bat datorrela horrekin, eta gogora ekarri du aski dela berritzeko prozedura Osoko Bilkuraren erabakiaren bitartez hastearekin.

Jaurrietako Udala
Lakuntzako Udala
Lanako Udala
Leitzako Udala
Lekunberriko Udala
Leozko Udala
Lergako Udala
Ledeako Udala
Lizoain-Arriasgoitiko Udala
Lodosako Udala
Los Arcosko Udala
Irunberriko Udala
Mañeruko Udala
Martzellako Udala
Melidako Udala
Mendabiako Udala
Mendazako Udala
Mendigorriko Udala
Metautengo Udala
Milagroko Udala
Eloko Udala
Monteagudoko Udala
Muesko Udala
Murchanteko Udala
Murillo el Cuendeko Udala
Muruzabalgo Udala
Nabaskozeko Udala
Noain Elortzibarko Udala
Obanosko Udala
Otsagabiko Udala
Odietako Udala
Olaztiko Udala
Olorizko Udala
Orisoaingo Udala
Orkoiengo Udala
Oroz Beteluko Udala
Iruñeko Udala
Azkoiengo Udala
Petilla Aragoiko Udala
Piedramillerako Udala
Pitillasko Udala
Garesko Udala
Ribaforadako Udala
Erronkariko Udala
Zareko Udala
San Adriango Udala
Zangozako Udala
Sartagudako Udala
Sesmao Udala
Sunbillako Udala
Tafallako Udala
Tebas-Muru Artederretako Udala

Zizur Zendeako Udaleko alkate den Barricarte jaunak galdetu du zenbat ukitzen ahal dituen betebeharrak.

Errepikatu da eguneratzeko prozesua hastea egiaztatzearekin nahikoa dela.

Azkoiengo Udaleko alkatea den Castillo jaunak adierazi du bere ustez logikoa dela ahalegin fiskal txikiagoa egiten dutenak penalizazioa izatea.

Untzue Udaleko alkatea den Ducun andreak galdetu du ea aurrerapausorik egin den zenbait toki entitate ukitzen dituen herri-lurren arazoan.

Adierazi zaio oharra hartu dela eta gestioei ekinen zaiela Landa Garapeneko Departamentuarekin.

Oltza Zendeako alkatea den Garjón jaunak zuntz optikoaren hedapenaz galdetu du. Adierazi du alde digitala handia dela eta enpresen esku ezin dela gelditu prozesua.

Presidenteak erantzun dio gai konplexua dela, eta ahaleginak egin direla Toki Inbertsioen Planean sartzeko Banda Zabaleko Plan Zuzentzailea, nahiz eta ez dagoen argi eskumen hori udalena den.

Ausejo andreak, Cortesko Udaleko alkateak, galdetu du zer egin den 0-3 urte bitarteko taldearekin.

Presidenteak zehaztu du egindako jarduketaren berri eman zaiola lantaldari.

ERABAKI DA: Adieraztea jakinaren gainean daudela zehaztutako jarduketak egin dituela NUKFk urteko lehenengo seihilekoan.

3. gaia- Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru Legearen aurreproiektua.

Presidenteak laburki erreparatu ditu Nafarroako toki administrazioaren berrantolaketaz toki entitateen iritzia finkatzeko asmoz NUKFk ordura arte eginiko jarduketak.

Prozesu parte-hartzailearen hiru faseak aipatu ditu, horietako bakoitzean zer jarduketa eta dokumentu egin den, eta NUKFren Batzarraren onespenera jarriko dela bukaeran, horrela finka dadin NUKFren erabakia aurreproiektu hori landuko duen Toki Araubideko Foru Batzordean.

Lortutako partaidetza nabarmendu du, 500 hautetsik baino gehiagok hartu baitute parte, eta, horregatik, prozesuak balio demokratikoa duela.

*Tirapuko Udala
 Torres del Rioko Udala
 Tuterako Udala
 Tulebrasko Udala
 Uxueko Udala
 Ultzamako Udala
 Untzueko Udala
 Urdiaingo Udala
 Urraulgoitiko Udala
 Urraulbeitiko Udala
 Urzainkiko Udala
 Utergako Udala
 Eguesibarko Udala
 Ollarango Udala
 Deierriko Udala
 Valtierrako Udala
 Vianako Udala
 Villafrancako Udala
 Villamayor de Monjardingo Udala
 Villatuertako Udala
 Esako Udala
 Zabaltzako Udala
 Zizur Nagusiko Udala
 Azedoko Kontzejua
 Alliko Kontzejua
 Antzingo Kontzejua
 Añezkarko Kontzejua
 Arazuriko Kontzejua
 Ardatz Izagaondoko Kontzejua
 Arrarasko Kontzejua
 Arreko Kontzejua
 Arruizko Kontzejua
 Artikako Kontzejua
 Aurizberriko Kontzejua
 Auzako Kontzejua
 Agezako Kontzejua
 Azozko Kontzejua
 Azpirotz-Lezaetako Kontzejua
 Azketako Kontzejua
 Baraibarko Kontzejua
 Berueteko Kontzejua
 Biurrungo Kontzejua
 Zigandako Kontzejua
 Zizur Txikiko Kontzejua
 Etxagueko Kontzejua
 Eguesko Kontzejua
 Eltzaburuko Kontzejua
 Eritzeko Kontzejua
 Errazkingo Kontzejua
 Eugiko Kontzejua
 Galarko Kontzejua
 Galbarrako Kontzejua*

Ondoren, idazkari nagusiak balorazio txostena azaldu du, Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatze Foru Legearen aurreproiektuaren prozesuaren barnean sortutako taldeek prestatu dutena eta NUKFk horren inguruko erabakia finkatzeko balio izanen duena. Txosten horretan, aurreproiektua eta prozesuan hitzartutakoa konparatu dira, ikusteko zer gai hartu den kontuan eta zein ez.

Presidenteak, berriz hitza hartuta, txostenaren arabera aurreproiektura erantsi ez diren zortzi gaiak errebasatu ditu, eta zehaztu du zer aukera izanen duen bozkatzeko Batzordeak.

Hauexek dira aukerak:

1. Baiezkoa ematea, eta, horrenbestez, aldeko txostena egitea aurreproiektuari Toki Araubideko Foru Batzordean, baina adieraziko zaio Nafarroako Gobernuari proiektura erantsi behar dituela prozesu parte-hartzaileko balorazio txostenaren zortzi gaiak, eta, Nafarroako Gobernuak kontuan hartzen ez baditu, Parlamentuko taldeei helaraziko zaie Parlamentuko tramitazioan.
2. Ezezkoa ematea aurreproiektuari, eta, horrenbestez, kontrako txostena egitea Toki Araubideko Foru Batzordean.

Bertaratutakoei hitza eman baino lehen, azaldu du hitz egiteko lehenengo txanda bat irekiko dela, eta, horretan parte hartu nahi duen orok mahaiari jakinarazi beharko diola.

Txanda hori bukatuta, bigarren txanda bat irekiko da.

Jasoko da nork hitz egin nahi duen.

Hitz egiteko lehenengo txanda ireki da.

Lehendabizi, Garbayo andreak hartu du hitza, zeina Cintruenigo alkatea eta NUKFko lehenengo presidenteordea baita: adierazi du, Batzorde Betearazlean bezala, txosten juridiko bat eskatu nahi duela, aurreproiektuaren inguruko iritzia eman ahal izateko. Orobat, nahigabea adierazi du Gobernuaren aldeko lau alderdiek aurreproiektua dela-eta emaniko prentsaurrekoarekin, esan baitzuten teknikariek abalazten dutela. Gainera, zehaztu du ezin dela bermatu Gobernuak edo Parlamentuak onartuko dituela kanpoan utzi diren zortzi gaiak.

Aurreproiektuaz, adierazi du akats nabarmenak dituela, batez ere finantzazio eredurik ez izatea. Haren ustez, beharrezkoa da kostuak aztertzea eta finantzazio sistemaren nondik norakoak zehaztea. Ezin dela onetsi zerbitzuak hobetzen ez dituen erreforma bat, zeinak gainera langileei arazo larriak sortzen baitizkie (lana galtzea barne) eta kontzeju ugari desagertzea ekar baitezake.

Garisoaingo Kontzejua
 Gazolazko Kontzejua
 Iberoko Kontzejua
 Ibirikuko Kontzejua
 Igoako Kontzejua
 Ilarregiko Kontzejua
 Iraizozko Kontzejua
 Iribasko Kontzejua
 Irurreko Kontzejua
 Itzalleko Kontzejua
 Izkueko Kontzejua
 Izurzuko Kontzejua
 Lakarko Kontzejua
 Larrasoañako Kontzejua
 Larraiaiko Kontzejua
 Lizarragabengoko Kontzejua
 Lizasoko Kontzejua
 Makirriaingo Kontzejua
 Muskizko Kontzejua
 Narkueko Kontzejua
 Oderizko Kontzejua
 Orokieta-Erbitiko Kontzejua
 Ororbiako Kontzejua
 Otiñanoko Kontzejua
 Rocaforteko Kontzejua
 Sartzeko Kontzejua
 Soraurengo Kontzejua
 Iribarriko Kontzejua
 Undioko Kontzejua
 Ustaizeko Kontzejua
 Bidaurreko Kontzejua
 Hiriberri Deierriko Kontzejua
 Biloriako Kontzejua
 Zabaldikako Kontzejua
 Zabaltzako Kontzejua
 Ziako Kontzejua
 Zubiriko Kontzejua
 Zufiako Kontzejua
 Basaburua-Imozko Udalen
 Batasuna
 Nafarroako Errege Bardeako
 Batzordea
 Erronkariko Ibaxaren Batzorde
 Nagusia
 Mocayoko Ur Mankomunitatea
 Iruñerriko Mankomunitatea
 Erriberako Mankomunitatea
 Jurramenduko Mankomunitatea
 Zangoza Eskualdeko Zerbitzuen
 Mankomunitatea
 Altsasuko, Olaztiko eta Ziordiko
 Gizarte Zerbitzuen
 Mankomunitatea

Eskualdeetako karguak izendatzeko sistemaz, haren ustez funtsezkoa da aldatzea.

Segituan Rodríguez jaunak hartu du hitza, zeina Ribaforadako alkatea eta bigarren presidenteordea baita. Parte-hartzea eskertu du, baita aurreproiektua Batzarrera eramateko konpromisoa ere. Haren iritziz, erreformak ziurgabetasunak baino ez dakarzkio Nafarroako toki administrazioari. Proiektua zehaztu gabe dago hein handi batean, eta, horregatik, onartzeak esan nahi du txeke zuria ematen zaiola Gobernuari, jakin gabe finantzazioa hobetuko den edo nolako eragina izanen duen herritarren zerbitzuen gainean eta udaletako langileen gainean. Uste du azken agiriari heldu zaiola, baina ez onetsitako oinarriko printzipioei (argitasuna, nahikotasuna eta eraginkortasuna), printzipio horiek ez baitira jaso. Memoria ekonomikoaren falta ere aipatu du, baita finantzazio sistemarena ere, eta horrek ziurgabetasuna eta egonkortasun eza dakar. Orobat, etorkizunean dira sortzekoak eskualdeak, eta horrek lurraldea egituratzeko printzipioaren kontra jotzen du. Horregatik guztiagatik, arrazoi asko daude kontrako jarrera hartzeko, haren ustez.

Monteagudoko alkatea den Herrero jaunak hartu du hitza. Adierazi du presidenteak zehaztutako bozka aukerei hirugarren bat erantsi behar zaiela: toki entitateen jarrera atzeratzea harik eta aurreproiektuak faltan dituen puntu guztiak bildu arte. Proposatu du izen bidez bozkatzea. Gainera, adierazi du prozesuaren zenbait ondorio ez direla jaso, besteak beste, eskumenak zehaztea geroratuko dela. Azpimarratu du ezin zaiela udal eskumenik eman legez eskualdeei eta eskualde bat sortzeak ezin duela ekarri mankomunitate bat desagertzea. Bukatzeko, mankomunitateetako langileen egoera izan du hizpide.

Zizur Zendeako alkatea den Barricarte jaunaren hitzetan, “auto bat saldu nahi digute, eta ez dakigu zer motor duen ez nola ordainduko dugun.” Kontzejuei dagokienez, adierazi du ezartzen zaiela langile profesionalak betetzea idazkaritzaren eta kontu-hartzailetzaren zerbitzuak, eta horrek kostua handituko duela ezinbestean. Halaber, adierazi du eskualde batzuetan bost mila herritar baino ez daudela eta hiriburua kokatu gabe dutela. Komunikazio eskasa egon daitekeela herri batzuen eta eskualdeko hiriburuaren artean. Halaber, beste arazo bat sor daiteke kontzejuek udal organoetan parte hartzearekin. Bukatzeko, kontabilitate analitikoa ezarri beharra izan du hizpide, kostu handia izan dezakeelako, baita, bozkatu baino lehen, eskualdearen finantza sistema eta eredia ezagutu beharra ere.

Presidenteak hartu du hitza lehenengo adierazpenei erantzuteko.

Txosten juridikorik ezaz esan du prozesuan parte hartu duten guztiek aukera izan dutela Federazioko teknikarien aholkularitzaz eta jarrera onaz baliatzeko, eta horiek galdera teknikoari ihardetsi dietela, bai lehenengo

Arguedasko, Valtierra, Villafranca, Milagro eta Cadreitako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
Erriberri Aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
Izarbeibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Kirolaren Mankomunitatea
Buñuel aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
Los Arcosko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
Izarbeibarko Mankomunitatea
Iratiko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea

agirien kasuan, bai azken aurreproiektuaren kasuan.

Finantzazioa zehaztuta ez egoteaz, adierazi du Toki Administrazioari buruzko Foru Legea 1990ean onetsi ondoren zenbait urte iragan zirela Toki Ogasunei buruzko Foru Legea onetsi arte. Dena dela, aitortu du ezin dela ukatu zehaztu gabe daudela gai garrantzitsu batzuk, kontuan hartu beharko lirakekeenak bozkatzeko. Herrero jaunak proposatutako hirugarren boto aukeraz, adierazi du ez dela baliozko aukera bat, proiektua erretiratzea ezezkoa ematea baita. Eskualdeari berezko gisa ematen zaizkion eskumenei dagokienez, adierazi du txostenak azpimarratzen duela udalarenak direla, eta, horrenbestez, borroka egin behar dela eskuordetuta esleitzeko.

Kontabilitate analitikoa ezartzeaz, zehaztu du martxan dagoela udal batzuetan, eta Estatuaren eskakizuna dela.

Hitza eman zaie berriz bertaratutakoei. Undioko Kontzejuaren ordezkari den Miranda jaunak hartu du hitza, eta eskerrak eman dizkie kontzejuen alde atera diren alkateei. Azaldu du oraingo egoerarekin kontzejuak desagertzera kondenatuta daudela eta aurreproiektuak helburu duela kontzejuen funtzionamendua bermatzea funtzionarioen bitartez. Kontzejuen partaidetzari datxekiola, uste du hobeki litzatekeela kontzejuak zuzenean parte hartuko balute eskualdean, baina proiektu hau hobe dela aurrekoak baino.

Etxeberria jaunak, Eguesibarko Udaleko alkateak, prozesuak eskatutako ahalegina eskertu du. Haren ustez, beharrezkoa da toki administrazioa berrantolatzea, mapa arrazionalizatzea, zerbitzuak hobetzea eta lurraldeen arteko desorekak apaltzea, eta horretarako zimenduak paratuko direla erreforma horrekin. Ulertzen du oinarrietatik abiatu dela, parte-hartze handiarekin, aurreko legegintzaldian ez bezala, ez baitzen gisa horretako prozesurik gauzatu egin gogo zen erreformarekin. Adierazi du ez dela behin betiko dokumentu bat, lehenengo urratsa baizik, eta adierazitakoak erantsi beharko zaizkiola. Ulertzen du esparru lege bezala atera behar dela aurrera, eta NUKFk ikuskatu behar duela ondorengo garapena. Gogora ekarri du aurreko legegintzaldian NUKFk aldeko txostena egin ziola aurreproiektu bati, orain erreklamatzaren diren txostenak eta azterlanak izan gabe. Idazkaritzako langileei dagokienez, adierazi du mahai gainean eduki behar dela gaia. Bukatzeko, baiezkoto botoa eskatu du, legearen garapenean hobetu eta parte hartzeko denbora dagoelako.

Altsasuko alkatea den Ollo jaunak azaldu du zer arazo sor daitekeen idazkaritzaren eta kontu-hartzaitzaren lanpostuak betetzen badira aurreproiektuan aurreikusten den moduan, hau da, deialdi bat eginez onetsi eta hiru hilabeteko epean 1500 biztanletik gorako udalerrietan. Horrek ekarriko du halako langile askok baimenak eskatuko dituela ikasteko, noiz eta erronka handiei heldu behar zaienean, hala nola administrazio elektronikoari. Horren berri eman beharko litzaieke Gobernuari zein Parlamentuari.

Azkoiengo Udaleko alkatea den Castillo jaunak eskerrak eman ditu prozesuarengatik, eta bere egin du idazkaritzako langileen inguruan esandakoa, udalen egonkortasuna kolokan jar daitekeelako.

Eredu ekonomikoaren faltaz, adierazi du ez dela zehazten parte-hartzearen portzentajea, baina orotarazi du lehen bazegoela, eta horrek ez zuela galarazi Funtza jaistea.

Tafallako alkatea den Goldaracena jaunak esan du makularik gabekoa izan dela prozesua, baita bozkatzeko proposatu diren aukerak ere, kontuan hartu beharreko zortzi gaiak erantsita. Azpimarratu du aintzat hartu beharko litzatekeela aurreproiektuaren prestaketan Gobernuak onartu eta erantsi dituen ekarpenen kopuru handia. Aitortu du zenbaitetan zer zehaztu falta dela, baina hori onuragarria ere izan daitekeela. Haren ustez, aurreproiektuak baiezkoa merezi du, baiezko kritikoa baina.

Artazuko Udaleko alkate den Albizu jaunak prozesu parte-hartzailea nabarmendu du, eta izandako parte-hartze handia eskertu. Haren iritziz, oso garrantzitsua izan da prozesua antolatzeke modua eta teknikariek horretan izandako jarrera. Orobat, azpimarratu du prozesuko proposamen ugari bildu direla aurreproiektuan, baina, aitortu duenez, hobeki zehaztu beharko zirela eskumenak eta finantzazioa. Prozesuaren barnean hau nabarmendu du: ura, hondakinak eta gizarte zerbitzuak udalez gaindiko eskumenak izatea, udalerriei eta kontzejuei eustea (beste erreforma proposamen batzuetan ez bezala), eta eskualdea udalez gaindiko entitate egokia izatea. Finantzazioaz, adierazi du zehaztu gabe dagoela, baina ulertzen duela ezin dela zehaztu eskumenak finkatzen ez diren bitartean, baina, behintzat, 2018ko finantzazioa bermatzen dela. Halaber, uste du eskualdeko batzordeko kideak izendatzeko sistema aldatu behar dela, independenteek behar adinako ordezkari izan dezaten. Haren iritziz, behar adinako baliabiderik ez izatea kendu behar da kontzejuak iraungitzeko arrazoietatik. Ados dago lur-ondasunen gaineko kontribuzioaren tartea murriztearekin.

Zabaltzako Kontzejuko burua den Galar jaunak adierazi du bere kontzejuan ez dagoela arazorik Udalarekin. Azpieskualdeei dagokienez, ez du argi gai hori oraindik mahai gainean duen.

Azagra Udaleko alkatea den Gutiérrez jaunak esan du ez duela argi zein diren bozkatzeko aukerak, Nafarroako Gobernuak ezezkua eman dielako eransteke zeuden gauzei. Ulertzen du finantzaziorik ez dagoela. Adierazi du prozesua gustatzen zaiola eta zimenduak badaudela, baina nagusia falta da. Presidenteari adierazi dio zenbait puntutan aurreproiektua defendatzen duela.

Altsasuko Udaleko alkatearen iritziarekin bat dator idazkaritzaren eta kontu-hartzailetzaren langileen inguruan, eta uste du kontuan hartu behar dela sor dezakeen anabasa.

Presidenteak azaldu du ez duela aurreproiektua defendatzen, ezpada proiektu parte-hartzailea eta haren emaitzak.

Sesma Udaleko alkatea den Mangado jaunak prozesua eskertu du, baina, haren ustez, gai nagusiak ez daude bilduta aurreproiektuan. Mankomunitateak eskualdetan egituratzen dira, besterik ez; baina oraingo proiektuan berezko eskumenak aipatzen dira, eta hori desberdina da, lurralde entitate bat eratzen baita. Ulertzen du udalenak izan behar direla eskumenak, eta eskuordetzaren bidez esleitu, betiere titulartasunari eutsita. Gizarte zerbitzuez, esan du lan ona egiten dutela eta kezkatuta dagoela erreformak izan dezakeen eraginaz. Ez dago ados eskualdeen zein azpieskualdeen planteamenduarekin. Halaber, idazkaritzaren eta esku-

hartzailetzaren langileekin sor daitekeen arazoa aipatu du, eta azaldu ez datorrela bat halako langileak eskualdera eramatearekin.

El Bustoko Udaleko ordezkaria den Arizaga andreak adierazi du herri txikia izanik kezkatuak daudela; komunitate batzuetako kideak dira eta gogobetarik daude haiekin; ez dakite zer eragin izanen duen aurreproiektuak. Galdetu du nork hartuko duen bere gain idazkaritzaren kostua. Uste du udalerrri handietarako dela erreforma.

Etxagueko Kontzejuko burua den Recalde andreak adierazi du Batzarrera joana dela erabaki delako erreforma toki entitate guztien onespenera jartzea, ez aurreko legegintzaldian bezala. Bi urte daramatzagu lanean, eta uste du aurreproiektuak errespetatzen dituela bai udalak bai kontzejuak. Esan du nahi izan duten guztiek aukera izan dutela parte hartzeko. Kezkatuta dago Eskualdeko Batzarreko kideak izendatzeko moduarekin, horrek eragina izan dezakeelako elkarte independenteetan, baita behar adinako baliabiderik ez izateak kontzejua azkentzearekin ere. Halaber, adierazi du Foru Batzordera baldintzak eraman daitezkeela, lehenago egin baita. Bukatzeko, adierazi du kontzejuen ordezkaria den aldetik aurreproiektuarekin ados dagoela, eta lanean jarraitu behar dela.

Mendazako Udaleko alkatea den Senosiain jaunak adierazi du azken Batzarrean, erreformaz galdetuta, erantzun zela oraindik prestatu gabe zegoela. Halaber, adierazi du ez daudela garbi ez eskumenak ez finantzazioa, baina udalen autonomia murriztuko dela eta hurbiltasuna galduko dela zerbitzuak ematerakoan, eta horrek beti udalerrri txikien kalterako izanen dela.

Iratiko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateko burua den Cañada andreak adierazi du zenbait puntu ez dituela garbi: organoen ordezkartza eta hiriburutzak agiriak. Egindako lana eskertzen du.

Aranguren Udaleko alkatea den Romero jaunak adierazi du ez zaiola gustatzen Batzarraren giro politikoa. Ilusioa dakusa aldaketetan, baina uste du ez dela zuzen jokatu, falta diren agiriak abiapuntu izan behar zutelako. Bozkatzeko aukerekin, esan du ongi iruditzen zaiola proposatutako aldaketak sartzearen alde borrokatzea, baina proposatutakoa ez dagoela bermaturik.

Aiegiko Udaleko ordezkaria den Echarri jaunak idazkaritzaren langileen gaia azpimarratu du, batez ere halako langileei ematen zaien tratamendu desberdina, zer udalerritan aritzen diren. Ulertzen duenez, 1500 biztanletik gorako behin-behineko langileak kalteturik atera daitezke aurreikusten delako lanpostu horiek segituan betetzea, baina populazio txikiagoko udalerrietako idazkaritzetan aritzen direnek, berriz, lanpostuetan jarraituko dute, eta, eskualdeak sortutakoan, hara pasako dira. Uste du gai hori munta handikoa dela, udalen funtzionamendua ukituko duelako, eta, horregatik, eskatu du bederatzigarren puntu gisa sar dadila, Nafarroako Gobernuak kontuan har dezan.

Oibarko Udaleko alkatea den Burguete jaunak eskerrak eman dizkio idazkari nagusiari eta NUKFko talde tekniko guztiari prozesu osoan zehar izan duten jarrerarengatik eta egindako lanarengatik.

Ondoren, Herrero jaunak hartu du hitza eta Etxeberria jauna aipatu du, esanez harrigarri zaiola lehen zalantzan jartzen zena orain egokitzen jotzea, oztopoa izan gabe kontrako botoa emateko orduan.

Garbayo andreak ere eskertu du teknikoaren lana. Harrigarri zaiola orain axola ez izatea zer falta den.

Presidente jaunak hartu du hitza berriz, Batzarraren onespenera jarriko diren bozketa aukerak errepikatzen. Gogora ekarri du zortzi gai horiek finkatu gabe daudela, eta bederatzigarrena sartzeko aukera planteatu du, idazkaritzaren lanpostuari buruzkoa, hala eskatu baita hitz egiteko txandan; horretarako, bozkatu beharko da.

Zenbaitek hitza hartu dute azaltzeko bidezkoa den ala ez gai hori eranstea aldaketa proposamenetara.

Idazkari nagusiak azaldu du bildu dena prozesu parte-hartzailearen ondoriozkoa dela, eta, horregatik, gai hori sartu ala ez bozkatu baino lehen, bozkatu beharko litzatekeela puntu berriak sartzeko aukera; horretarako, gehiengo beharko litzateke.

Bozkatu da bidezkoa den gai gehiagorik eranstea prozesuaren ondoriozko 8 horietara.

Aldeko 84 botorekin, ez da bidezkotzat jo gai berririk eranstea, eta, horregatik, ez da bozkatzeko planteatutako proposamena sartzeko.

Halaber, izen bidezko bozketa egitea, eskua jasoz egin beharrean, onespenera jarri da, Monteagudoko Udaleko alkateak eskatu bezala.

Izen bidezko bozketaren alde 44 boto eginda, ulertu da ez dela lortu Estatutuaren eskatzen den quoruma.

Ondoren, presidentek proposatu bezala bozkatu da aurreproiektua:

81 boto kontrako direla, 11 abstentzio eta 148 boto aldeko.

ERABAKI DA:

Baiezkoa ematea aurreproiektuari, eta, hortaz, aldeko txostena egitea Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzen aurreproiektuari, baina Nafarroako Gobernuari helarazita prozesu parte-hartzailean onetsitako txostenetik ondorioztatzen diren zortzi puntuak, akta honen eranskinean atxikita daudenak, aurreproiektuari erants diezazkion, eta, NUKF beretako gordetzea Parlamentuko taldeei ere helarazteko aukera, Parlamentuko tramitazioan, aurreproiektuan jasotzen ez badira.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko 20:30ak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEA

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.